

BESTE EGIPTO BATZUK: ALEXANDRIA ETA MUNDO GREKO-ERROMATARRA

IKASTAROAN IZEN-EMATEKO ORRIA

Alexandria, Alexandro Handiak sortua, Egipto greko-erromatarraren bihotza izan zen: merkataritza- eta kultura-zentro garrantzitsua, non greziar, erromatar eta egiptoar kulturak Ptolomeotarren dinastiaren eta ondorengo erromatarren garaian elkartu ziren, artean, erlijioan, arkitekturan eta eguneroko bizitzan ikus daitekeen sinkretismo berezi bat sortuz. Hiria, gainera, Egipto erromatarraren aniztasuna ezagutzeko atea da; inperioaren probintziarik aberatsenetako bat izan zen, eta dokumentazio idatzi ugari eman du, papiroak, bere funtzionamendu instituzional eta administratiboa ez ezik, egitura sozial eta erlijioso konplexua ere ezagutzeko aukera ematen dutenak. Egipto greko-erromatarraren izaera multikulturala agerian geratu zen Egiptoko bizitza instituzional, ekonomiko, sozial eta erlijiosoaren arlo guztietan, eta horren ondorioz sortu zen ondare arkeologiko eta historiko oso aberatsa, gaur egunera arte iraun duena.

IRAKASLEA: Elena Torregaray Pagola doktorea, Antzinako Historian irakasle titularra (UPV/EHU).

IKASTAROAREN DATAK: Honako astelehenak

OTSAILAREN 16a eta 23a
MARTXOAREN 2a, 9a eta 16a
APIRILAREN 27a,
MAIATZAREN 4a, 11a, 18a eta 25a

AUKERATU BEHARREKO ORDUTEGIA:

- Goizeko txanda. 11:00-12:00. Gaztelaniaz.
- Arratsaldeko txanda: 18:00-19:00. Gaztelaniaz.

PROGRAMA

1. Alexandriaren sorrera
2. Merkataritza-hiria: portua
3. Alexandriako biztanleria
4. Erlijio-guneak
5. Zientziarako hiria: Liburutegia eta Museoa
6. Urpeko hiria
7. Egipto greko-erromatarreko beste hiri batzuk: Oxirrincio, Herakleopolis Magna, etab.
8. Egiptoko turismo greko-erromatarra
9. Ekialderako ibilbideak
10. Kleopatraren mitoa, Egiptoko azken erregina-faraioia

DATU PRAKTIKOAK

Prezioa: 75 € pertsona bakoitzeko

Prezioaren barne: ordubeteko 10 klase

Izen emateko baldintzak: Plaza erreserbatzeko, museora deitu edo harrera lekura bertaratu. Plaza lortzerakoan, ordainketa egin behar da esku-dirutan, txartela edo banku-transferentziaren bitartez (ikaslearen izena kontzeptuan esleitzen) Informazio gehiago: www.oiasso.com edo 943.63.93.53. telefonoan. Txanda bakoitzean gutxienez 10 pertsonak eman beharko dute izena.

Kontu korrontea: N° IBAN: ES90 2095 5045 809119163759.

✂.....
"Beste Egipto batzuk: Alexandria eta mundo greko-erromatarra" IKASTAROAREN IZEN EMATEKO ORRIA

Izen-abizenak Jaiotze-data.....
NAN..... Txanda: ☐ Goizetan ☐ Arratsaldetan
Telefonoa..... E-maila.....
Ordainketa: ☐ Esku-dirutan ☐ Transferentzia ☐ Txartela

✂.....
ORDAINAGIRIA
.....(ek) kopurua ordaindu du, 2026ko otsailetik maiatzara ikastaroa ordaintzeko.

Data, sinadura edo zigilua